



DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2018

LANBIDE

1. Proiektu bereziak	2
2. Lehenetsunez langile langabeentzat diren prestakuntza-ekintzak	4
3. HEZIBI programa – Gazteentzako ikas-ekinezko programa.....	6
4. HOBETUZ. Enplegurako prestakuntzako dirulaguntzen deialdia 2018ko ekitaldirako, lehenetsunez Euskal Autonomia Erkidegoko langile okupatuei zuzendua	7
5. HOBETUZ. Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek martxan jartzen dituzten prestakuntza-ekintza estrategikoetarako dirulaguntzen deialdia 2018ko ekitaldirako	9
6. Prestakuntza kontratazio-konpromisoarekin	11
7. Kualifikazio gutxiko gazteentzako prestakuntza.....	12
8. Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta Etxebizitzarako Prestazio Osagarria.....	14
9. EAEko enpresen kanpoko lantokietan kontratatzea 35 urtetik gorako pertsona langabeak	16
10. Gazte langabeak atzerrian ezarritako EAEko enpresetan praktikan kontratatze laguntzak	18
11. Enplegu lagundua, desgaitasuna duten pertsonak lan-merkatu arruntean integrazteko neurritzat.....	20
12. Gazteen Itzulera programa.....	23
13. Pertsona ekintzaileentzako laguntzak	25
14. Txandako lan-kontratua.....	27
15. Familia eta lana bateragarri egiteko laguntzak	29
16. Desgaitasuna duten pertsonak Enplegu Zentro Berezietan laneratzea sustatzeko laguntza eta dirulaguntza publikoak	31
17. Gizarte Segurantzako kuotak ordaintzeko dirulaguntza, langabezia-prestazioa kobratzen duten onuradunentzat. Ordainketa bakarra.....	33
18. Enpresa arruntean desgaitasuna duten pertsonen kontratu mugagabea egiteko dirulaguntzak	35
19. Enplegua sustatzeko tokiko laguntzak. Tokiko enplegua garatu eta sortzeko proiektuak	36
20. Laneratze enpresei zuzendutako laguntzak.....	38
21. Laguntzak SINTEL enpresako langileei	40
22. Enplegu-zentro berezietan lanbide-jarduera sustatzeko unitateak	42
23. Lehen Aukera programa.....	44
24. Tokiko entitateek gazteak kontratatzea, 2014-2020 eperako Gazte Enpleguaren Programa Operatiboaren markoan.....	46



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Proiektu bereziak

2.- Araua

EBAZPENA, 2017ko abenduaren 28koa, Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen baita dirulaguntzen 2018ko ekitaldiko deialdia, lana duten langileei eta lana lortzeko edo hari eusteko zailtasunak dituzten pertsona langabeei zuzendutako laneratze eta gizarteratze proiektu berezien garapenerako. (2017ko azaroaren 29ko EHAA).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2017/12/1706306a.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdi honen xedea da 2018an Proiektu Bereziak finantzatzera bideratutako laguntzak arautzea, gizarteratzen eta laneratzen laguntzeko edo langileen enplegarritasuna hobetzeko jarduera integralak diren aldetik, zenbait motatako esku-hartzeak beste erakunde publiko edo pribatu batzuekin bateratzen edo koordinatzen dituztenak.

Proiektu bereziek prestakuntza-, orientazio- eta enplegu-ekintzak edo haietan parte hartzen duten pertsonen enplegarritasuna hobetzeko bestelako neurriak konbinatzen dituzte:

- a) Prestakuntza ematea, bai gaitasun profesionaletan, bai oinarrizko gaitasunetan, edo Prestakuntza Espezialitateen Katalogoan erregistratutako premiazko prestakuntzetan edo Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak baimendutako beste prestakuntzetan. Lanpostuan bertan prestakuntza-ekintzak egiteko aukera ere egon daiteke, prestakuntza enpleguarekin txandakatuz.
- b) Enplegu-aukerak aztertzea, agente kontratatzaileak izan daitezkeenekin harremanetan jartzeko eta tartean sartzeko, lan-merkatuko beharrak identifikatuz eta parte hartzen duten pertsonen kontratazioa bultzatuz.
- c) Orientazio profesionaleko eta laneratze ekintzak, laneratze ibilbide pertsonalizatua egitea sustatze aldera, parte hartzen duten pertsonen jarraipen pertsonala eta emaitzen ebaluazioa egin ahal izateko.
- d) Parte hartzen duten pertsonak kontratatze laguntzak. Deialdi honen baitan diruz lagundu ahal izango dira gutxienez 6 hilabeteko iraupena duten kontratuak. Lanaldi osokoak edo lanaldi partzialekoak izan daitezke; azken kasu horretan, ezin dira izan ezarritako lanaldiaren % 70etik beherakoak.
- e) Hartzaileen enplegarritasunaren hobekuntza bermatzea helburu duen beste edozein jarduera.



Proiektu berezien ekintzak laneratzeko zailtasun espezifikoak dituzten pertsonari zuzenduta daude: langabeak eta lan-merkatuan jarraitzeko eta enplegarritasuna hobetzeko prestakuntza espezifiko behar duten pertsona okupatuak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Lortutako emaitzak:

Prestakuntza-ekintzak: 232 prestakuntza-ekintza, 30 proiektu integralen barruan, 1.780 pertsonari zuzenduak.

Prestakuntza jaso duen pertsona kopurua: 1.780 pertsona.

Aurrekontuaren exekuzioa

2019. urteko Proiektu Bereziak finantzatzeko, 4.000.000 euro bideratu dira. Horietatik, 2.000.000 euro 2018ko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 2.000.000 euro Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren 2020ko konpromiso-kredituari.

2018ko abenduaren 31n exekutatuak zenbatekoa 2.963.520,34 €koa izan da (1.481.760,17 € 2018ko ordainketa-kredituari dagozkio eta kopuru bera 2020ko konpromiso-kredituari).

Gizartean duen eragina eta baliagarritasuna:

Deialdi honen bidez diruz lagundutako jardueren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko pertsona okupatuak eta langabeak —gizarteratzeko eta laneratzeko zailtasun handienak dituztenak— aukera ematen zaie prestakuntza jasotzeko, eta lana aktibatzen ekintzak ere bai, lan-merkatuan sartzen direla bermatzeko. Dirulaguntza lerro hori beste erakunde batzuen finantzaketa duten proiektuak batera finantzatzeko diseinatuta dago, eta xedea da ahaleginak batzea eta koordinatzea, eta helburuak lortzen direla bermatzea.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Prestakuntza-ibilbidea amaitu duten eta, gutxienez, 1. edo 2. mailako kualifikazioko titulazioa lortu duten pertsonak: % 50	50%	*
Aldez aurretik jasotako prestakuntzarekin lotuta dagoen jardueraren sektoreko enpresetan kontratatutako pertsonak: % 30	30%	*
* Proiektua martxan dago, hortaz, oraindik ez dago Dirulaguntzen Plan Estrategikorako daturik.		



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Lehentasunez langile langabeentzat diren prestakuntza-ekintzak

2.- Araua

2018ko ekainaren 27ko EBAZPENA, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiarena. Horren bidez, 2018-2020 epean langabeei zuzendutako prestakuntza-eskaintza finantzatzeko dirulaguntzen deialdia argitaratzen da, Euskal Autonomia Erkidegoan Enplegurako Lanbide Heziketa arautzen duen maiatzaren 31ko 82/2016 Dekretuaren esparruan. (3499 Erabakia, 2018/06/27koa - 2018ko uztailaren 5eko EHAA)

2018ko uztailaren 23ko EBAZPENA, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiarena. Horren bidez, 2018-2020 epean langabeei zuzendutako prestakuntza-eskaintza finantzatzeko dirulaguntzen deialdia argitaratzen duen 2018ko ekainaren 27ko Ebazpenaren akatsak zuzentzen dira, Euskal Autonomia Erkidegoan Enplegurako Lanbide Heziketa arautzen duen maiatzaren 31ko 82/2016 Dekretuaren esparruan. (2018ko uztailaren 31ko EHAA)

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2018/07/1803499a.pdf>

Akatsen zuzenketa: <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2018/07/1803911a.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Enplegurako lanbide-heziketa enplegu-zerbitzu publikoek beren zerbitzuen barruan langileei eskaintzen dieten tresna nagusietako bat da, erabakigarria dena lan-merkatuan sartzen laguntzeko edo enplegarritasuna hobetzeko. Prestakuntza-ekintza hauei esker, ikasleek gaitasun profesionalak eta pertsonalak eskuratzen, hobetzen edo eguneratzen dituzte, eta, hala badagokio, lanekoak ez diren praktikak eginez, esperientzia lortzen dute lanpostu batean, eta enpresei erakusten diete prestatu diren lanbide-profiletan lan egiteko gai direla.

Testuinguru horretan, Erabaki honek arautzen duen finantzaketa duten prestakuntza-ekintzen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko langabeek, lehentasunez, prestakuntza-eskaintza zabala dute eskura haien enplegarritasuna modu eraginkorrean hobetzen laguntzeko.

Halaber, eskaintza honen helburua da langileek jasotako prestakuntza egiaztagarria izatea, eta lortutako gaitasunak Profesionaltasun Ziurtagirien Euskal Erregistroan jasota egotea.

Deialdi honen bidez, bi jarduera-ildo jorratzen dira:

- prestakuntza-ekintzak kontratazio-konpromisoarekin,
- lehentasunez langabeen enplegarritasuna eta laneratzea sustatzeko bestelako prestakuntza-ekintzak.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Lortutako emaitzak

274 prestakuntza-ekintza eta prestakuntza jaso duten 4.441 pertsona 2018an; guztira 2.493 ekintza-ekintza onetsi dira 2018-2020 epean 38.795 pertsonari prestakuntza emateko.

Aurrekontuaren exekuzioa

Deialdi hau finantzatzeko, 66.000.000 euro bideratu dira. Horietatik, 16.500.000 euro 2018ko ordainketa-kredituari dagozkie; 33.000.000 euro, 2019ko konpromiso-kredituari; eta 16.500.000 euro, 2020ko konpromiso-kredituari.

2018ko abenduaren 31n exekutututako zenbatekoa 65.947.139,81 €koa izan da.

Gizartean duen eragina eta baliagarritasuna:

Onartutako prestakuntza-ekintzei esker, parte-hartzaileen % 60k jaso du prestakuntza egiaztagarria —hau da, Profesionaltasun Ziurtagiria lortzeko balio duen prestakuntza—. Prestakuntza egiaztagarri eta kalifikatzaile horrek aukera ematen du lanpostu baten berezko zereginak egiteko. Halaber, prestakuntza eman zaie lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonari, hala nola, desgaitasuna dutenei eta laneratzeko zailtasunak eta kualifikazio txikia dituzten pertsonari. Azken horiek ikastaroak egin dituzte hizkuntzan eta matematiketan funtsezko gaitasunak bereganatzeko, ezinbesteko baldintza baita prestakuntza egiaztagarria jaso ahal izateko; eta gaitasun pertsonalak eta trebetasun sozialak garatzeko prestakuntza ere bai.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
<ul style="list-style-type: none"> Funtsezko eta zeharkako gaitasunetan prestakuntza jaso duen pertsona kopurua 	3.500	1.599
<ul style="list-style-type: none"> Prestakuntza ziurtagiria jasotzeko prestatutako pertsona kopurua 	13.500	2.531
<ul style="list-style-type: none"> Prestakuntza ez-egiaztagarriaren bidez prestatutako pertsona kopurua 	2.000	311



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

HEZIBI programa – Gazteentzako ikas-ekinezko programa

2.- Araua

2018ko apirilaren 11ko EBAZPENA, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baita diru-baliabideak esleitzen dituen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren erabakia. Diru-baliabide horien bidez finantzatuko dira, 2018ko ekitaldian, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuak eta Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuak emandako 2012ko urriaren 3ko Agindu bateratuan aurreikusitako laguntzak; agindu horren bidez ezarri ziren gazteentzako ikas-ekinezko Hezibi programaren oinarri arautzaileak. (2018ko apirilaren 18ko EHAA)

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperresteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2018/04/1802046a.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Lanbide-heziketa eta lana aldizkatzeko eredia. Lanbide-heziketako ikasleentzat eta gazte langabeentzat enpresen barruan enpleguari eta bestelako irakasbideei lotutako prestakuntza-ekintzak bultzatzea, enpresako lan-jarduera ordaindua eta profesionaltasun-ziurtagiri bat edo hasierako lanbide-heziketako titulu bat lortzeko ikasketak aldizkatuz gazte horien lanbide-gaitasunak hobetzeko, eta, era berean, enpresen premiak eta langileek eskuratutako gaitasunak uztartzen laguntzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Lortutako emaitzak

Prestakuntza dualeko 1.006 pertsona kontratatuk jaso dute Hezibi dirulaguntza 2018an.

Aurrekontuaren exekuzioa

Baliabide ekonomikoak 2.690.253 euro dira guztira; horietatik 1.080.253 euro 2018ko ordainketa-kredituari dagozkie, eta 1.610.000 euro 2019ko konpromiso-kredituari.

2018ko abenduaren 31n exekutatutako zenbatekoa 2.303.145,40 €koa izan da.

Gizartean duen eragina eta baliagarritasuna:

Prestakuntza dualak zuzeneko eragina du Lanbide Heziketako titulu bat edo profesionaltasun-ziurtagiri bat lortzeko ikasten ari diren gazteen enplegarritasunean. Izan ere, gazteak prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratuaren bidez kontratatzen dituzte, eta horrek abantaila ugari ditu hala enpresentzat nola langileentzat.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
• Prestakuntza egiten ari direla kontratatutako pertsona kopurua	1.346	1.006



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

HOBETUZ. Enplegurako prestakuntzako dirulaguntzen deialdia 2018ko ekitaldirako, lehentasunez Euskal Autonomia Erkidegoko langile okupatuei zuzendua

2.- Araua

2018ko ekainaren 27ko EBAZPENA, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko pertsona okupatuei lehentasunez zuzendutako prestakuntza-eskaintza finantzatzeko deialdia argitaratzen da, 2018-2020 aldirako. (2018ko uztailaren 5eko EHAA).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2018/07/1803498a.pdf>

Akatsen zuzenketa:

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2018/07/1803910a.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Enplegurako lanbide-heziketako azpistemaren prestakuntza-ekimenaren helburua, nagusiki, pertsona landunei prestakuntza-ekintzak eskaintzea da, maila indibidualean gaitasunak eta kualifikazioa hobetu ditzaten, edo birkalifikatu daitezten. Pertsona landunekin batera, deialdi honetan jasotako ekintzetan parte hartu ahal izango dute Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaille gisa izena emanda duten langabeek; hala ere, ezingo dira izan plan horren barruan prestakuntza jasotzen hasten direnen % 40 baino gehiago. Ekimen honen bidez, biztanleria aktiboaren enplegarritasuna eta prestakuntza hobetu nahi dira bitzita osoan zehar, eta,aldi berean, enpresen produktibitatea eta lehiakortasuna sustatu.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Lortutako emaitzak

Prestakuntza jaso duen pertsona kopurua: 24.821.

Aurrekontuaren exekuzioa

Deialdi hau finantzatzeko 29.800.000 euro bideratu dira. Horietatik, 7.450.000 euro 2018ko ordainketa-kredituari dagozkie; 14.900.000, euro 2019ko konpromiso-kredituari; eta 7.450.000 euro, 2020ko konpromiso-kredituari.

2018ko abenduaren 31n exekutututako zenbatekoa 29.799.503,00 €koa izan da.



Gizartean duen eragina eta baliagarritasuna:

Lanbide-heziketako sistemaren barruan dauden ekimenetatik, lehentasunez pertsona landunentzat den prestakuntza da, oro har, haien heziketan eragin handiena duenetako bat; gainera, pertsona langabeek ere parte har dezakete prestakuntza horretan. Prestakuntza hau baliagarria da pertsonen gaitasunak – hala kualifikaziokoak nola zeharkakoak– hobetzeko; gainera, prestakuntza frogagarria ere sustatzen du, profesionaltasun-ziurtagiriaren bidez. Programak eragin nabaria du gizartean, pertsona landunei zein langabeei aukera ematen dielako prestakuntza jasotzeko, eta lanpostuan behar diren gaitasun profesionalak hobetzen laguntzen duelako.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Prestakuntza jaso duen pertsona kopurua	33.200	24.821



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

HOBETUZ. Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek martxan jartzen dituzten prestakuntza-ekintza estrategikoetarako dirulaguntzen deialdia 2018ko ekitaldirako

2.- Araua

2018ko ekainaren 13ko EBAZPENA, Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Horren bidez, laguntza ekonomikoen deialdia argitaratzen da, 2018ko ekitaldirako, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek martxan jartzen dituzten prestakuntzako estrategia-ekintzetarako. (2018ko ekainaren 20ko EHAA).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2018/06/1803178a.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek beren langileen gaitasunak eta kualifikazioak hobetzeko programaturiko prestakuntza-ekintzak (prestakuntzako estrategia-ekintzak) garatzeko laguntza ekonomikoak.

Estrategia-ekintzak dira enpresaren proiektuari zuzenean lotuta egonik premien diagnostiko batean edo antzeko agiri batean —aurkezturiko ekintzen eta horiek hartuko dituzten langileen lehentasunaren adierazgarri den batean— jasagarriak direnak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Lortutako emaitzak

15.394 lagunek jaso dute prestakuntza. 363 enpresak parte hartu dute parte.

Aurrekontuaren exekuzioa

Deialdi hau finantzatzeko 3.200.000 euroko baliabide ekonomikoak erabili dira; horietatik, 1.600.000 euro 2018ko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 1.600.000 euro, aldiz, 2019ko konpromiso-kredituari.

2018ko abenduaren 31n exekutututako zenbatekoa 3.200.000 eurokoa izan da.

Gizartean duen eragina eta baliagarritasuna:

Enpresentzako ekintza estrategikoek eragin positiboa dute dirulaguntzak eskatzen dituzten enpresetan lanean ari diren pertsonen prestakuntzan. Hain zuzen, prestakuntzaren bidez, enpresak zehaztutako prestakuntza-helburuak bete nahi dira. Langileak jasotzen duen prestakuntzari esker, bere lana hobeto egin ahal izango du, eta hobeto egokituko da enpresak bere eguneratze-prozesuan eta produkzioaren bilakaeran egin behar dituen teknologia- eta prozesu-aldaketetara.



Prestakuntzak inpaktu handia du, 400 enpresa baino gehiago eta 15.000 parte-hartzaitetik gora izan baitira.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
• Prestakuntza jaso duen pertsona kopurua	12.500	15.394
• Parte hartu duen enpresa kopurua	280	363



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Prestakuntza kontratazio-konpromisoarekin

2.- Araua

2018ko ekainaren 13ko EBAZPENA, Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Honen bidez, 2018. urtean Euskal Autonomia Erkidegoko langile langabeentzako kontratazio-konpromisodun prestakuntza-ekintzak egiteko dirulaguntzen deialdia argitaratzen da, Euskal Autonomia Erkidegoan Enplegurako Lanbide Heziketa arautzen duen maiatzaren 31ko 82/2016 Dekretuaren esparruan. (2018ko ekainaren 20ko EHAA).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2018/06/1803181a.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdi honen xedea da kontratazio-konpromisoa duten prestakuntza-ekintzak finantzatzeko 2018. urteko laguntzak arautzea. Laguntzak Euskal Autonomia Erkidegoko langabeei zuzenduta daude, eta Euskal Autonomia Erkidegoan Enplegurako Lanbide Heziketa arautzen duen maiatzaren 31ko 82/2016 Dekretuaren esparruan ematen dira.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Lortutako emaitzak

- Kontratazio-konpromisodun prestakuntza-ekintzetan parte hartu duen pertsona kopurua: 671 (% 44, gizonak; eta % 56, emakumeak)

Aurrekontuaren exekuzioa

Deialdi hau finantzatzeko, 3.000.000 euro bideratu dira. Horietatik, 1.500.000 euro 2018ko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 1.500.000 euro, 2019ko konpromiso-kredituari.

2018ko abenduaren 31n exekutututako zenbatekoa 2.369.325,70 €koa izan da.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Prestakuntza jaso duen pertsona kopurua	1.000	671
Konprometitutako kontratu kopurua	500	375



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Kualifikazio gutxiko gazteentzako prestakuntza

2.- Araua

2018ko urriaren 31ko EBAZPENA, Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Horren bidez, 2018-2020 eperako dirulaguntzen deialdia argitaratzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko kualifikazio gutxiko gazte langabetuak gizarteratzea eta laneratzea sustatzea helburu duten prestakuntza-ekintzak egiteko. (2018ko azaroaren 12ko EHAA).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2018/11/1805541a.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdi honen xedea hau da: 2018-2020 aldirako, oinarrizko gaitasunak, gaitasun soziopertsonalak eta oinarrizko gaitasun tekniko eta profesionalak lantzeko ibilbideak sortzen dituzten prestakuntza-proiektuak finantzatzeko laguntzak arautzea; hala, prestakuntzaren hartzaileen garapen pertsonala eta laneratzea zein gizarteratzea sustatzen dute, eta 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriak eskuratzen laguntzen diete.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Lortutako emaitzak

195 gaztek parte hartu dute onetsitako 13 proiektuen prestakuntza-ibilbideetan.

Aurrekontuaren exekuzioa

Deialdi hau finantzatzeko, 1.497.750 euro bideratu dira. Horietatik, 378.000 euro 2018ko ordainketa-kredituari dagozkio; 748.875 euro, 2019ko konpromiso-kredituari; eta 370.875 euro, 2020ko konpromiso-kredituari.

2018ko abenduaren 31n exekutututako zenbatekoa 1.497.750 eurokoa izan da.

Gizartean duen eragina eta baliagarritasuna:

Programa honekin, konponbidea eman nahi zaio, batetik, ikasteari utzi zioten pertsona gazteen arazoari, beren adinagatik berriro hasierako lanbide-heziketa egin ezin dutenak; eta, bestetik, gaztelaniaz ikasi ez ezik, gaitasun sozial eta kulturalak bereganatu eta lan-prestakuntza egin behar duten etorkin gazteen arazoari, gurean gizarteratzeko eta laneratzeke.



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emitza
Prestakuntza-ekintzak:	124	124
Prestakuntza jaso duen pertsona kopurua:	195	195



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta Etxebizitzarako Prestazio Osagarria

2.- Araua

- 18/2008 LEGEA, abenduaren 23koa, Gizarteratzeari eta Diru-sarrerak Bermatzeari buruzkoa.
- 147/2010 DEKRETUA, maiatzaren 25ekoa, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzkoa.
- 2/2010 DEKRETUA, urtarrilaren 12koa, Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarriari buruzkoa.
- 2001eko otsailaren 14ko AGINDUA, Oinarrizko Errentaren titularrak eta Gizarte-larrialdietarako Laguntzen onuradunak lanean hasteko pizgarriak ezartzen dituen.
- 4/2011 LEGEA, azaroaren 24koa, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Legea aldatzen duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

- 18/2008 LEGEA: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2008/12/0807235a.pdf>
- 147/2010 DEKRETUA: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2010/06/1003020a.pdf>
- 2/2010 DEKRETUA: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2010/01/1000216a.pdf>
- AGINDUA, 2001eko otsailaren 14koa: <http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2001/02/0100962a.pdf>
- 4/2011 LEGEA: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2011/12/1105924a.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta izeneko prestazio ekonomikoa aldizkakoa eta eskubide subjektibokoa da, bizikidetzaren batean oinarrizko premiei lotutako gastuei zein gizarteratzeko edo laneratzeko prozesu baten ondorio diren gastuei aurre egiteko diru-sarrera nahikorik ez daukatenei zuzendua.

Etxebizitzarako Prestazio Osagarriari aldizkako prestazio ekonomikoa da, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren (DSBE) osagarria. Etxebizitzaren edo ohiko bizilekuaren alokairu-gastuak ordaintzea du xede, modalitatea edozein dela ere: errentamendua, azpierreantamendua, baterako errentamendua, ostatatzea eta logelen alokairua.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Lortutako emaitzak

Espedienteen/DSBEren titularren batezbestekoa: 57.478

Espedienteen/EGPOren titularren batezbestekoa: 26.581

Onuradunen batezbestekoa: 102.895

Aurrekontuaren exekuzioa

DBE eta EGPOra bideratutako kreditua 2018an: 491.300.000 €. Kopuru horretako dirulaguntzak eman dira.



Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina:

Euskal gizarteko kolektiborik ahulenak babesteko programa da, eta bere helburua lortu du, izan ere, 57.000 pertsona baino gehiago babestu ditu 2018an.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Ez dagokio, ez baita dirulaguntzarik.



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

EAEko enpresen kanpoko lantokietan kontratatzea 35 urtetik gorako pertsona langabeak

2.- Araua

Administrazio Kontseiluak 2017ko abenduaren 28ko bileran hartutako erabakia. Horren bidez, EAEko enpresen kanpoko lantokietan 35 urtetik gorako langabeak kontratatzeko laguntzen deialdia argitaratzen da 2018. urterako. (2017ko abenduaren 29ko EHAA)

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2017/12/1706304a.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek 35 urtetik gorako pertsonak kontratatzeko laguntzak arautzen ditu. Pertsona horiek langabezian egon behar dute, kualifikazio eta/edo eskarmentu profesionala izan behar dute, eta ezaugarri horiekin lotutako enpleguak bete behar dituzte, enpresen nazioartekotze-prozesuetan. Lana kanpoko lantokietan egin behar da, partaidetutako enpresetan edo enpresa-talde bereko beste enpresa batzuetan, baldin eta EAEko enpresek horiekin lankidetzatza-hitzarmenak edo zerbitzu emateko kontratuak baldin badituzte. Kontratuak 12 hilabeteko iraupena izan behar dute gutxienez, eta horietako 6 kanpoan dauden lantokietan igaro behar dira. Lanaldi osoko kontratuak dira.

Helburuak: 35 urtetik gorako pertsonen lan-aukerak indartzea eta hobetzea, eta EAEko ekonomiaren lehiakortasuna eta lan-merkatuaren kalitatea hobetzen laguntzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Lortutako emaitzak

35 urtetik gorakoei egindako kontratu kopurua: 2 pertsona kontratatu dira (biak gizonak)

Parte hartu duen enpresa kopurua: 3 (enpresa batek uko egin dio dirulaguntzari).

Aurrekontuaren exekuzioa

Baliabide ekonomikoak 400.000 eurokoak dira. Horietatik, 200.000 euro 2018ko kreditu arruntekoak dira eta 200.000 euro, 2019ko konpromiso-kreditukoak.

42.750,00 €-ko dirulaguntzak eman dira.

Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina. Oso baliagarria, baina eragin oso txikikoa: Deialdi honen helburua da 35 urte edo gehiagoko pertsonen laneratzea eta lan-aukerak hobetzea. Horretarako, pertsona horien kualifikazioa eta lan-esperientzia azpimarratu behar dira, Enpleguaren Euskal Estrategia 2020an ezarritako aukera-berdintasunaren esparruan. Halaber, nazioartean dabiltzan edo nazioartekotzeko prozesuan dauden EAEko enpresei lagundu nahi die, baliagarria baita EAEko ekonomia hobetzeko.



Alabaina, 2014. urtean programa martxan jarri zenetik, enpresen interesak behera egin du. Interesaren beherakada horren arrazoia izan daiteke, besteak beste, hautagai egokiak eta atzerrira lekualdatzeko prest daudenak aurkitzeko zailtasuna. Hori dela eta, enpresa onuradunak, kasuren batean, uko egin dio laguntzari.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
- 35 urtetik gorakoei egindako kontratu kopurua:	18	2
- Parte hartu duen enpresa kopurua:	15	2
		(+ dirulaguntzari uko egin dion enpresa 1)



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Gazte langabeak atzerrian ezarritako EAEko enpresetan praktketan kontratatze laguntzak

2.- Araua

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren erabakia, 2017ko abenduaren 28ko bilkuran hartutakoa; horren bidez, laguntzen deialdia onartzen da, 2018. urtean EAEko enpresen kanpoko lantokietan gazteak praktketan kontratatze. (2017ko abenduaren 29ko EHAA)

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2017/12/1706305a.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deskribapena: EAEko enpresek 34 urteko edo gutxiagoko pertsonak praktikaldian kontratatze laguntzak. Pertsona horiek titulazioa edo eskarmentu profesionala izan behar dute, langabezian egon behar dira eta ezin dute izan aurretiazko lan-eskarmenturik beren titulazioarekin lotutako lanetan. Lan hori kanpoko lantokietan egin behar da, partaidetutako enpresetan, enpresa-talde bereko beste enpresa batzuetan edo kanpoan kokaturiko enpresetan, baldin eta EAEko enpresek horiekin lankidetzahitzarmenak edo zerbitzu emateko kontratuak baldin badituzte. Kontratuek 12 hilabeteko iraupena izan behar dute gutxienez, eta horietako 6 kanpoan dauden lantokietan igaro behar dira. Lanaldi osoko kontratuak dira.

Helburuak: Gazteak laneratzea, beren lan-eskarmentua sustatzea eta gazteen kualifikazioaren eta talentuaren garapena bultzatzea; horrez gain, kualifikazio tekniko eta profesionaleko pertsonak behar dituzten enpresei laguntzea beren nazioartekotze-prozesuetan.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Lortutako emaitzak

Azken onuradunen kopurua: 2 kontratu enpresa batean (enpresa batek uko egin dio)

Aurrekontuaren exekuzioa

Deialdi honetan araututako laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak 1.010.000 eurokoak dira. Horietatik, 505.000 euro 2018ko aurrekontuko ordainketa-kreditukoak dira, eta beste 505.000 euro 2019ko aurrekontuko ordainketa-kreditukoak.

24.900,00 €-ko dirulaguntzak eman dira.

Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina

Oso baliagarria, baina eragin txikikoa: Deialdi honen helburua da gazteen laneratzea eta lan-aukerak hobetzea, Enpleguaren Euskal Estrategia 2020an ezarritako aukera-berdintasunaren esparruan. Halaber,



nazioartean dabiltzan edo nazioartekotzeko prozesuan dauden EAeko enpresei lagundu nahi die, EAeko ekonomia sustatze aldera. Alabaina, enpresek gero eta interes txikiagoa dute programaren aurrean. Eskaera-kopuruaren beherakadaren arrazoia izan daiteke beste deialdi publiko batzuk ere badirela, antzeko helburuarekin, eta pertsonak kontratatuzera behartzen ez dutenak. Horrez gain, zaila da hautagai egokiak eta atzerrira lekualdatzeko prest daudenak aurkitzea.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
- Gazteei egindako praktikaldiko kontratu kopurua:	80	2
- Parte hartu duen enpresa kopurua:	50	1
		(+ dirulaguntzari uko egin dion enpresa 1)



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Enplegu lagundua, desgaitasuna duten pertsonak lan-merkatu arruntean integrazteko neurritzat

2.- Araua

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren erabakia, 2017ko abenduaren 28ko bilkuran hartutakoa; horren bitartez, enplegu lagundurako jardunak garatzera bideratutako 2019ko dirulaguntzen deialdia onartzen da, desgaitasunak dituzten pertsonak lan-merkatu arruntean sartzeko neurri gisa. (2017ko abenduaren 29ko EHAA)

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2017/12/1706303a.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deskribapena: Enplegu lagunduko jarduerak egiteko laguntzak eta pizgarriak arautzen ditu, desgaitasuna eta laneratzeko zailtasun handienak dituzten pertsonak lan-merkatu arruntean laneratzeko tresna izateko eta enpresei laguntzeko, bai kontratatu aurretik, bai pertsona lanpostua betetzen hasi ondoren. Hala, enplegu lagunduko unitateetako profesional espezializatuek (lan-arloko prospekziogileek eta prestatzaileek) ematen dute laguntza hori, zenbait jarduera integratuaren bidez.

Helburua: Enplegu lagunduko unitateen jarduera diruz laguntzeko, konpromiso batzuk hartu eta helburu batzuk bete behar dira, hala nola, desgaitasuna eta laneratzeko zailtasun handienak dituzten pertsonen enpleguko eta laneratzeko aukeren prospekzioak egitea. Pertsona horiek Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda egon behar dute, enplegu-eskatzaile gisa. Honako pertsona hauen laneratzea lehenetsiko da:

- desgaitasun intelektuala, gaixotasun mentala edo garuneko paralisia duten pertsonak, % 33 edo gehiagoko desgaitasun-maila aitortuta dutenak.
- desgaitasun fisikoa edo zentzumenezkoa duten pertsonak, % 65 edo gehiagoko desgaitasun-maila aitortuta dutenak; edo gorrak edo entzuteko desgaitasuna duten pertsonak, % 33 edo gehiagoko minusbalotasun-maila aitortuta dutenak.

Desgaitasuna duten emakumeen laneratzea bultzatzeko, kontratatutako pertsona emakumea bada, % 10 handituko da dirulaguntzaren zenbatekoa.

Halaber, zehaztutako desgaitasun mota horiek dituzten langileak, enplegu-zentro berezietan aritutakoak, lan-merkatu arruntean laneratzea aurreikusten da, bai eta dagokion deialdiaren aurreko urteetan laneratutako pertsonen eta enpresei laguntzea ere.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Lortutako emaitzak*

Enplegu lagunduko ekipo kopurua: 9

Desgaitasuna duten pertsonen egindako kontratu kopurua: 81

Desgaitasunak dituzten zenbat pertsona dauden jarraipen-prozesuan: 153

Enpresetara egindako bisita kopurua: 2.085

* Behin betiko datuak, laguntzen justifikazio-memorian emandako datuetan oinarrituta.

Aurrekontuaren exekuzioa

Baliabide ekonomikoak 1.000.000 eurokoak dira. Horietatik, 500.000 euro 2019ko aurrekontu arruntari egokituko zaizkio, eta beste 500.000 euro, 2020ko aurrekontu arruntari.

1.000.000 euroko dirulaguntzak eman dira.

Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina

Desgaitasuna izanik lan-merkatu arruntan laneratu den pertsona kopurua handituz doa, eta hori nahitaez lotu behar da jarraipenaren eta enplegua mantentzearen adierazleekin. 2018an, sinatutako 4 kontratutik 1 mugagabeak izan dira, eta beste 3 aldi baterakoak; hala ere, kontratu-mota edozein dela, sinatutako 63 kontratu urtebeterako izan dira, gutxienez. Hau da, 2018an Enplegu Lagunduaren deialdian lortutako laneratzeen % 78 12 hilabete edo gehiagoko lan-esperientzia izan dira.

Enplegu Lagunduaren metodologiaren bitartez, lan-esperientzia luzeak eskaintzeari esker, desgaitasunen bat duten pertsonen enplegarritasuna hobetzen da, biztanle aktiboak dira eta, kontratua iraungiz gero, aukera gehiago izango dute lan berria aurkitzeko. Lanaldien iraupenari dagokionez, lanaldi osoak ez dira ohikoenak Enplegu Lagunduan; hala ere, 23 pertsonak izan dute lanaldi osoa, eta 2018an sinatutako kontratuen % 94 lanaldi erdia (% 50) baino gehiagokoak izan dira (76).

Lanaldiaren banaketa	Laneratzeak	%
Lanaldiaren % 50 baino laburragoak	5	% 6
Lanaldiaren % 50-69 bitartean	40	% 49
Lanaldiaren % 70-99 bitartean	13	% 16
Lanaldi osoa	23	% 28
Guztira	81	% 100

Enplegu babestuaren aurrean, Enplegu Lagunduaren zerbitzuak sustatzen duena da desgaitasuna duten pertsonen lan-giro arruntan jardutea, hau da, enpresa berean antzeko lanpostuak betetzen dituzten eta desgaitasunik ez duten beste langileek dituzten antzeko baldintzetan lan egitea. Hortaz, lan-giro normalizatueta desgaitasuna duten langileen presentzia sustatzea da zerbitzu horren helburua, eta beste ekintza publiko batzuekin batera, desgaitasuna duten pertsonen laneratzea ere sustatzen du; hala, estatu



mailan, Euskal Autonomia Erkidegoa da jarduera- eta enplegu-tasa altuenetakoak dituen autonomia-erkidegoa, eta desgaitasuna duten pertsonen langabezia-tasa, berriz, baxuenetarikoa.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emitza
Enplegu lagunduko talde kopurua:	9	9
Desgaitasunak dituzten zenbat pertsona kontratatu diren:	57	81*
Desgaitasuna duen eta jarraipen-prozesuan dagoen pertsona kopurua:	149	153*
Enpresetara egin nahi den bisita kopurua:	2.152	2.085*

* Berrikuspen-fasean dagoen datua.



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Gazteen Itzulera programa

2.- Araua

Administrazio Kontseiluak, 2017ko abenduaren 28ko bilkuran hartutako erabakiaren bidez, gazteak itzultzeko laguntzen 2018ko deialdia onartu zuen, Euskal Autonomia Erkidegoko lan-zentroetan gazteak kontratatzeko helburuarekin. (EHAA, 2017/12/29)

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2017/12/1706309a.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdi honen helburua da Euskal Autonomia Erkidegora itzultzen diren 35 urtetik beherako gazteak kontratatzeko ematen diren laguntzen oinarriak ezartzea eta laguntza horiek arautzea. Kontratua EAEko enpresek egin behar diete, Euskadiko lan-merkatuan laneratzen laguntzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Lortutako emaitzak

Enpresa-eskatzaille kopurua: 16 (laguntza ematearen aldeko 14 ebazpen)

Eskatutako kontratazio-postu kopurua: 23

Kontratua egiteagatik laguntza jaso duen lanpostu kopurua: 18

Enpresa onuradun kopurua: 6 (10 enpresek laguntzari uko egin zioten, hainbat arrazoiengatik: eskaintzak ez duelako emaitzarik ematen; ez zituztelako hautagaiak kontratatu nahi; beren hautagaiak ez zituelako betetzen Gazteen Itzulera programako fitxategian sartzeko eskatzen diren baldintzak)

Gazteei egindako kontratu kopurua: 6

Lekualdaketagatik emandako laguntza kopurua: 6 (guztira, 8 eskatu ziren)

Aurrekontuaren exekuzioa

1.770.000 euro bideratu dira. Horietatik, 1.185.500 euro 2018ko ordainketa-kredituari dagozkie, eta 584.500 euro, 2019ko konpromiso-kredituari.

71.750,00 euroko dirulaguntzak eman dira.

Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina

Programa berria da —2017ko 4. hiruhilekoan jarri zen abian— eta oraindik zaila da itzuli nahi duten gazteengana heltzea. Alde batetik, Gazteen Itzulera programako fitxategian dauden gazteentzako lan-eskaintzak ez dira nahikoak izan, eta, zenbait kasutan, lanpostuak bete gabe geratu dira, hautagai egokirik aurkitu ez delako.



Bestetik, gazteek berandu izan dute deialdiaren berri, alegia, EAera bueltatu ondoren; hori dela eta, 2019. urteko deialdirako, aldaketa hau egin da: programan parte hartu ahal dute EAera bueltatu zirenetik 3 hilabete baino gehiago igaro ez badira.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
- Langabeen zegoen eta kontratatu den gazte kopurua:	226	6
- Lekualdaketagatik emandako laguntza kopurua:	198	6



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Pertsona ekintzaileentzako laguntzak

2.- Araua

Administrazio Kontseiluak, 2018ko irailaren 25eko bilkuran hartutako erabakiaren bidez, pertsona ekintzaileentzako laguntzen 2018ko deialdia onartu zuen. (EHAA, 2018ko urriaren 4koa, 192. zk.)

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2018/10/1804839a.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

EAEko ekintzaileei zuzendutako deialdia. Lau ildo hauek ditu:

- a) Ekintzaile izan daitezkeen pertsoneri zuzendutako laguntzak, enpresa-ideiak sortu, aztertu eta egituratzeko lanak egin ditzaten arduraldi osoan, ekintzailetzako toki-proiektuen esparruan. (Enpresa-ideiak garatzeko laguntzak).
- b) Tokiko ekintzailetza-proiektuen esparruan, negozio-idea zehaztua duten ekintzaileek enpresa-proiektu berriak abian jar ditzaten bultzatzeko laguntzak. (Enpresa-proiektu berriak abian jartzeko laguntzak).
- c) Enpresa-jarduera bat hasi duten eta hura sendotzeko laguntza ekonomikoa behar duten pertsonentzako laguntzak (Proiektua ezartzeko laguntzak).
- d) Enpresa-jarduera bati ekin dioten pertsonentzako laguntzak, jarduera hori sendotzeko. (Enpresa-jarduera bat sendotzeko laguntzak).

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Lortutako emaitzak

Sortutako enpresa kopurua: 140

Laguntza ekonomikoa eskuratu duen ekintzaile kopurua: 1.359

Erakunde laguntzaile kopurua: 28

Aurrekontuaren exekuzioa

Deialdi honek arautzen dituen laguntzak finantzatzeko, 4.100.000 euro bideratu dira. Horietatik, 2.705.000 euro 2018ko ordainketa-kredituari dagozkie, eta 1.395.000 euro, 2019ko konpromiso-kredituari.

3.342.850,00 euroko dirulaguntzak eman dira.

Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina

Emaitzek badute behar besteko munta, eta, aurreikusitakoak baino apalagoak diren arren, programa baliagarria da, eragina du gizartean, ekintzailetza enplegua sortzeko aukera den garaiotan; hala, jarduera hori sustatzen jarraitu behar da, oraindik ez baita sortu besteren konturako enplegu nahikoa, eta



ekimenaren hartzaile nagusiak gazteak baitira, hau da, gainerako langabeena baino langabezia-tasa handiagoa duen kolektiboa.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Sortutako enpresa kopurua	140	amaitu gabe
Enpresa-ideia garatzean eta enpresa-proiektua martxan jartzean oinarrituta dauden enpresa-ekimenak sustatzen dituen pertsona kopurua	315	326
Ekonomia-jardueren gaineko zergan alta egin duen pertsona kopurua	140	amaitu gabe
Jada sortuta dagoen eta martxan jartzeko, jarraitzeko nahiz egonkortzeko dirulaguntza jaso duen enpresa kopurua	980	797



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Txandako lan-kontratua

2.- Araua

Administrazio Kontseiluak, 2017ko abenduaren 28ko bilkuran hartutako erabakiaren bidez, txandako lan-kontratuak sustatzeko laguntzen 2018ko deialdia onartu zuen. (247. zenbakidun EHAA, 2017ko abenduaren 29koa).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2017/12/1706307a.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Lanbiden izena emanda dauden 30 urtetik beherako gazteen enplegua sustatzen du, eta baita enpresetan iraupen jakineko kontratuekin lan egiten ari diren gazteena ere. Xede hori betetzeko, diruz laguntzen dira enpresek gazteen kolektibo horrekin sinatzen dituzten txanda-kontratuak, honako baldintza hau jarrita: kontratuak lanaldi osokoak eta iraupen mugagabekoak izatea; edo, bestela, iraupen zehatzekoak izanez gero, kontratua amaitu ostean edo bukatu aurretik mugagabe bihurtzeko konpromisoa hartzea hasieratik. Era berean, txandako lan-kontratua duen pertsonak gutxienez 12.000 € irabazi behar ditu urtean. Kontratu bakoitzeko 6.000 €-ko laguntza emango da.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Lortutako emaitzak

Kontratatutako pertsona kopurua: 46

Aurrekontuaren exekuzioa:

Baliabide ekonomikoak 1.000.000 eurokoak dira guztira. Horietatik, 600.000 euro 2018ko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 400.000 euro, 2019ko konpromiso-kredituari.

276.000,00 euroko dirulaguntzak eman dira.

Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina:

Aurreko deialdiaren antzekoak izan dira emaitzak, ezarritako helburuetatik nahiko urrun. Alabaina, argi dago baliagarria dela eta gizartean eragina duela, izan ere, programaren helburua da belaunaldi-erleboia sustatzea eta plantillak gaztetzea; horretarako, lana aurkitzeko zailtasunik handienak dituzten kolektiboak laneratzen laguntzen du, eta bide berriak irekitzen ditu gazteen talentua enpresetara eramateko.



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Gazteei egin beharreko txanda-kontratu kopurua	120	46
Gazteei egin beharreko txanda-kontratuei lotutako kontratu gehigarrien kopurua	30	2
Parte hartu duen enpresa kopurua	150	38



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Familia eta lana bateragarri egiteko laguntzak

2.- Araua

Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren erabakia, zeinaren bidez zenbait dirubaliabide esleitzen baitira familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko ekainaren 29ko 177/2010 dekretuaren IV. kapituluaren ezarritako laguntzak 2018ko ekitaldian finantzatzeko. (1230 Ebazpena, 2018/02/27koa - 47. EHAA, 2018ko martxoaren 7koa).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2018/03/1801230a.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Langabe moduan inskribatuta dauden pertsonak kontratatzeke dirulaguntzak emango dira, betiere jarraian azalduko diren pertsonak zaintzeko eszedentzia hartu edo lanaldia murriztu duten eta besteren kontura lan egiten duten langileak, edo kooperatiba-sozietateetako bazkide langileak edo lan-bazkideak ordeztzeko kontratatzen badira:

- seme-alabak, 27.1.a) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.
- mendekotasuna duten senideak edo muturreko osasun-larrialdi egoeran daudenak, 27.1.b) artikuluan ezarritako ahaidetasun-harremana dutenean.

Era berean, diruz lagunduko da aldeztetik lanaldi partzialerako kontratatutako langile baten lanaldiaren luzapena, eszedentzia edo lanaldi-murrizketa duen beste langile baten lanpostua betetzeko egin baldin bada.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Lortutako emaitzak

Diruz lagundutako kontratazioak: 2.019

Aurrekontuaren exekuzioa

2018an laguntza hauek finantzatzeko 2.380.000 € bideratu dira, eta emandako dirulaguntzak 2.379.271,06 eurokoak izan dira.

Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina

Programaren baliagarritasuna eta eragina adierazten dute kontratatutako eta enplegu-eskatzaile gisa izena emandako langile kopuruak, bai eta kontratazio horiek programaren onuradun izan diren enpresetan izan duten eraginak ere, kontratazio horien bidez lortu baita, alde batetik, langileen lana eta familia bizitza bateragarri egitea, eta, bestetik, beste langile batzuk kontratatzea eta sinergieiei eustea programaren onuradun izan diren enpresetan.



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Kontratu kopurua:	1.750	2.019



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Desgaitasuna duten pertsonak Enplegu Zentro Berezietan laneratzea sustatzeko laguntza eta dirulaguntza publikoak

2.- Araua

Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren erabakia, zeinaren bidez zenbait diru-baliabide esleitzen baitira Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioaren 1998ko urriaren 16ko Aginduan ezarritako laguntzak 2018an finantzatzeko. Agindu horren bidez, desgaitasuna duten pertsonak enplegu-zentro berezietan laneratze laguntza eta dirulaguntza publikoak emateko oinarri arautzaileak ezartzen dira. (1234 Ebazpena, 2018/02/27koa - 47. EHAA, 2018ko martxoaren 7koa).

Administrazio Kontseiluaren erabakia, zeinaren bidez areagotzen baitira 2018. urteko laguntzak finantzatzeko diru-baliabideak. (5353 Ebazpena, 2018/10/24koa - 210. EHAA, 2018ko urriaren 31koa).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2018/03/1801234a.pdf>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2018/10/1805353a.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Desgaitasuna duten pertsonen laneratzea, integrazio pertsonala eta gizarteratzea sustatzea, eta desgaitasuna duten ahalik eta pertsona gehien lan-erregimen arruntean integratzeko tresna izatea. Halaber, desgaitasuna duten langileen baldintza fisiko, psikiko edo intelektualetara egokitutako lanpostuak eskaintzen dira.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Lortutako emaitzak

Kontratututako pertsona kopurua (batez besteko plantilla urtean): 9.772

Zentro kopurua: 75

Aurrekontuaren exekuzioa

Laguntza horiek 2018an finantzatzeko, hasiera batean 33.700.000 euro bideratu ziren. Gero, aurrekontua areagotzea onartu zen, 8.292.000 euro gehiago. Ondorioz, aipatutako laguntzak finantzatzeko aurrekontu-kredituaren zenbateko osoa 41.992.000 euro izan zen.

Emandako dirulaguntzak 41.979.879,97 eurokoak izan dira.

Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina



Gero eta gehiago dira enplegu-zentro berezietako lanpostuak, izan ere, 2017ko abendutik 2018ko abendura bitartean % 7,69 hazi da desgaitasuna izanik zentro horietan lanean dagoen pertsona kopurua. Gaur egun, desgaitasuna duten 9.772 pertsonak dute, batez beste, lan-okupazioa eta -arreta, eta horrek eragin eta inpaktu sozial handia du, bai, batik bat, desgaitasuna dutenen familiengan bai dakarkien ongizatean, desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzearen eta laneratzearen bidez.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
- EAEn indarrean dagoen EZB kopurua:	76	75
- Desgaitasuna duen langile kopurua, batez bestez:	8.950	9.772



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Gizarte Segurantzako kuotak ordaintzeko dirulaguntza, langabezia-prestazioa kobratzen duten onuradunentzat. Ordainketa bakarra

2.- Araua

Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren erabakia, zeinaren bidez zenbait diru-baliabide esleitzen baitira Lan eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren 1994ko apirilaren 13ko Aginduan ezarritako laguntzak 2018an finantzatzeko. Agindu horren bidez, oinarri arautzaileak ezartzen dira langabezia-prestazioa ordainketa bakarreko modalitatean jasotzen dutenei Gizarte Segurantzako kuotak ordaintzeko dirulaguntzak emateko, 1044/1985 Errege Dekretuaren 4.2. artikuluan ezarritakoari jarraikiz. (1235 Ebazpena, 2018/02/27koa - 47. EHAA, 2018ko martxoaren 7koa).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2018/03/1801235a.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Dirulaguntzaren xedea da lan elkartuko kooperatiba bateko edo lan-izaerako sozietate bateko langile bazkideek, merkataritza-izaerako erakundeak eratzen eta abian jartzen dituzten pertsona langabeek eta beren konturako erregimenean lanean hasten direnek jarduera profesionalak egitea. Dirulaguntza jaso ahal izateko, ezinbestekoa da Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak ordainketa bakarreko modalitatean eman izana langabezia-prestazioa, prestazio horrek egun zuen zenbateko osoan.

Horretarako, diruz laguntzen dira goian adierazitako langileek Gizarte Segurantzari ordaindu beharreko kuotak, baldin eta jasotzeko zuten langabezia-prestazioaren kopuru osoa batera eskuratzeko eskubidea erabili baldin badute, beren jarduera profesionalaren hasieran laguntzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Lortutako emaitzak

Ordainketa bakarreko prestazioa jaso duen pertsona kopurua: 500

Aurrekontuaren exekuzioa

Laguntza horiek finantzatzeko baliabide ekonomikoak 500.000 euro izan dira 2018an. Emandako dirulaguntzak 482.992,67 eurokoak izan dira.

Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina

Enplegua sustatzeko neurri honen xedea da prestazioen onuradunek enplegu propioa lor dezaten sustatzea eta autoenplegua bultzatzea, langabeziaren aurkako babes-politika pasiboaren ordez enplegu-politika aktiboari helduz. Krisiaren ondorioak indarrean irauten duten bitartean, horrelako neurriak bultzatu behar dira, langabezia dauden langileen laneratzea laguntzeko.



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Kooperatibetan edo lan-sozietateetan bazkide modura sartu den pertsona kopurua, edo autonomo hasi direnak, hau da, norberaren kontura:	750	500



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Enpresa arruntean desgaitasuna duten pertsonen kontratu mugagabea egiteko dirulaguntzak

2.- Araua

Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren erabakia, zeinaren bidez zenbait dirubaliabide esleitzen baitira maiatzaren 11ko 1451/1983 Errege Dekretuaren II. Kapituluaren eta Lan eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren 1994ko apirilaren 13ko Aginduan ezarritako laguntzak 2018an finantzatzeko, biak ere desgaitasuna duten pertsonen enplegua sustatzeko helburuarekin. (1233 Ebazpena, 2018/02/27koa - 47. EHAA, 2018ko martxoaren 7koa).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2018/03/1801233a.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Hartutako neurrien helburua da desgaitasuna (sortzetikoa nahiz eratorria) duten pertsonen laneratzea bultzatzea, enpresa arrunteko lanpostuetan. Finean, dirulaguntza ematen zaie enpresei, desgaitasuna duten pertsonak kontrata ditzaten.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartearen

Lortutako emaitzak

Kontratatutako pertsona kopurua: 150

Aurrekontuaren exekuzioa

Laguntza horiek 2018an finantzatzeko, 700.000 euro bideratu dira. Emandako dirulaguntzak 495.975,00 eurokoak izan dira.

Baliagarritasuna eta gizartearen duen eragina

Desgaitasuna duten pertsonak lan-merkatu arruntean eta kontratu mugagabeen bidez laneratzeko laguntzen du programa honek, eta baliagarritasun eta eragin sozial handiak ditu kolektibo horretako pertsonentzat, lan babestuz bestelako lan-aukerak ematen dizkielako.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Kontratu mugagabe kopurua enpresa arruntean:	200	150



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Enplegua sustatzeko tokiko laguntzak. Tokiko enplegua garatu eta sortzeko proiektuak

2.- Araua

Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2018ko ekainaren 12ko bilkuran hartutako erabakiaren bidez, onartu du 2018an enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako dirulaguntzen deialdia, eta, maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuaren bidez onartutako Lanbideren Estatutuen 10.2 artikulua p) letran xedatutakoaren arabera, erakunde autonomo horren zuzendari nagusiari dagokio deialdia argitaratzea. (3179 Ebazpena, 2018/06/13koa - 118. EHAA, 2018ko ekainaren 20koa).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2018/06/1803179a.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdiaren xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeei laguntzak ematea, enplegua sortzeko proiektuak abian jar ditzaten. Proiektu horiek eragina izan behar dute beren jardun-eremuko garapen sozioekonomikoan eta modernizazioan, eta modu orekatuan eskaini behar dituzten enplegu-aukerak Euskadiko eskualde guztietan; betiere, Enpleguaren Euskal Estrategia 2020an ezarritako emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioa beteta.

Era berean, eta xede hori bera betetzeko, dirulaguntzak emango zaizkie enpresei, toki-erakundeei sustatutako proiektu estrategikoen esparruan.

Deialdi honen azken xedea da Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda dauden pertsonen enplegarritasuna hobetzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Lortutako emaitzak

Ekintzak aurkeztu dituen udal eta/edo mankomunitate kopurua: 45

Laneratutako pertsona kopurua: 2.463

Aurrekontuaren exekuzioa

Deialdi honetan araututako laguntzak finantzatzeko, 22.000.000 euro bideratu dira. Horietatik, 12.000.000 euro 2018ko ordainketa-kredituari dagozkie, eta 10.000.000 euro, 2019ko konpromiso-kredituari.

Emandako dirulaguntzak 20.951.653,45 eurokoak izan dira.



Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina

Programa honek, Autonomia Erkidegoaren eta Toki Erakundeen arteko Lankidetzaren Esparruaren baitan, aukera ematen die toki-erakundeei beren enplegu-planak bideratzeko, Enplegu Legeak ez baitie eskumenik ematen gai-alor horretan. Hortaz, deialdi honen bitartez, EAEk Enplegu Legearen 4. artikuluan xedatutakoa betetzen du, enplegu-politiken tokiko dimentsioari buruz.

Toki-eremua da egokiena ekoizpen-aukera berriak aurkitzeko; beraz, ezinbestekoa da enplegu-politiken diseinuan eta kudeaketa-ereduan toki-izaera hori kontuan hartzea, lurraldeko beharretara egokitu behar baitira. Izan ere, horrela sustatuko dira aukera horiek aprobetxatzen laguntzen duten jarduketak, eremu horretako enplegu-sorrerako eta enpresa-jarduerako ekimenak sustatuz eta laguntza emanez, enpleguaren oinarritzko arauan ezarrita dagoen bezala, urriaren 23ko 3/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Enplegu Legearen testu bateginean.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Ekintzak aurkeztu dituen udal eta/edo mankomunitate kopurua	52	45
	Ekintza kopurua, tipologiaren arabera:	
- Enpleguaren sustapena	70	463
- Kontratazioa sustatzeko laguntzak	60	19
- Bestelako ekintzak	50	0
Laneratutako pertsona kopurua	2.200	2.463



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Laneratzeko enpresei zuzendutako laguntzak

2.- Araua

Administrazio Kontseiluak 2018ko otsailaren 27ko bilkuran hartutako erabakia, zeinaren bidez onartzen baita laneratzeko enpresak sortzeko eta mantentzeko laguntzen 2018rako deialdia. Laguntza horiek Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2009ko maiatzaren 4ko Aginduan araututa daude. (1231 Ebazpena, 2018/02/27koa - 47. EHAA, 2018ko martxoaren 7koa).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2018/03/1801231a.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laneratzeko enpresak bitarteko bat dira, hau da, Eusko Jaurlaritzak, horien bidez, politika publikoak aplikatzen ditu gizarte-bazterketaren aurka borrokatzeko, bai eta behar gehien duten kolektiboak eta bazterketa-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonen lan-merkatu arruntean laneratzeko laguntzeko ere, akonpainamenduaren bidezko laneratzeko- eta gizarteratzeko-prozesuen bitartez.

Laneratzeko enpresak sortzeko laguntzak ematen zaizkie enpresa horien sustatzaileei. Merkatu-azterlanak egiteko laguntzak dira, enpresa horiek sortzea bideragarria den ala ez jakiteko.

Laneratzeko enpresen iraunkortasunerako laguntzak honako hauek dira:

- Aktibo finkoetan egindako inbertsioa
- Gizarteratzeko eta laneratzeko prozesuan dauden pertsonentzako lanpostuak sortzea eta mantentzea
- Produzioan laguntzeko teknikarientzako lanpostuak sortzea eta mantentzea
- Laneratzeko bidean laguntzeko teknikarientzako lanpostuak sortzea eta mantentzea
- Merkatu-azterlanak egiteko laguntza teknikoak
- Prestakuntza

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Lortutako emaitzak

Indarrean diren laneratzeko enpresak: 43

Kontratatutako langile kopurua: 652 pertsona laneratu dira (322 emakume eta 330 gizon)

Laneratzeko laguntzeko zenbat teknikarik jaso duten dirulaguntza: 124 pertsonak (64 emakume eta 60 gizon).



Aurrekontuaren exekuzioa

Deialdi honen xede diren laguntzak finantzatzeko, 10.220.000 euro bideratu dira guztira. Horietatik, 1.870.000 euro 2018ko ordainketa-kredituari dagozkie; 3.240.000 euro, 2019ko konpromiso-kredituari; 3.240.000 euro, 2020ko konpromiso-kredituari; eta 1.870.000 euro, 2021eko konpromiso-kredituari.

Emandako dirulaguntzak 8.709.168,42 eurokoak izan dira.

Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina

Emaitzak positiboak dira, eta horrek on egiten die programa honen baliagarritasunari eta eragin sozialari. Programaren helburua da baztertuta edo baztertuak izateko arriskuan diren pertsonak laneratzea, izan ere, haiek dituzte zailtasunik handienak bizi dugun krisialdi orokorrari aurre egiteko.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Indarrean den laneratzeko enpresa kopurua	44	43
Baztertuak izateko arriskuan egonik laneratzeko enpresetan kontratatu diren pertsonak	600	652
Laneratzeko enpresetan kontratatu beharreko Teknikari laguntzaileak	140	124



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Laguntzak SINTEL enpresako langileei

2.- Araua

Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak hartutako erabakia, zeinaren bidez dirubaliabideak esleitzen baitira 2018an 2001eko martxoaren 8ko 76/2000 eta 2001eko uztailaren 31ko 25/2001 enplegu-erregulazioko espedienteen eraginpean dauden langileentzako laguntza bereziak finantzatzeko, betiere laguntza horiek emateko prozedurari jarraituz, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2012ko apirilaren 18ko Aginduan xedatutakoarekin bat. (1232 Ebazpena, 2018/02/27koa - 47. EHAA, 2018ko martxoaren 7koa).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2018/03/1801232a.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Sintel enpresan egin ziren enplegua erregulatzeko espedienteetan sartu ziren langileak berriro laneratzen laguntzea, eta langile horiei laguntza bereziak eskaintzea. Laguntzak hilerordaintzen dira, eta langile-ohiek Gizarte Segurantzarekin izenpetu zuten hitzarmen bereziaren kostua ordaintzeko zenbateko gehigarriak izan daitezke.

Erretiroa hartzeko adina bete arte luza daitezke laguntza hauek.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Lortutako emaitzak

Langile onuradun kopurua: 7

Aurrekontuaren exekuzioa

Guztira 242.440 euro bideratu dira. Horietatik, 28.800 euro 2018ko ordainketa-kredituari dagozkio, eta gainerakoa hurrengo ekitaldietako konpromiso-kredituari, 2019tik 2030era bitartean.

Emandako dirulaguntzak 52.120,00 eurokoak izan dira.

Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina

Lan-merkatuak egun bizi duen egoerari erreparatuta, ikusten da krisiaren aurretik baino pertsona gehiagok izan dezaketela laguntza hau eskatzeko eskubidea; hori horrela, aurrekontuetan egin diren aurreikuspenak beste egoera egonkorrago batzuetan egingo liratekeenak baino handiagoak dira. Zenbatekoen aurreikuspena egitean, beraz, urtero 4 eskaera gehiago egon daitezkeela hartu da kontuan.



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Langile onuradun kopurua:	10	7
Langile onuradun kopurua	4	1



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Enplegu-zentro berezietan lanbide-jarduera sustatzeko unitateak

2.- Araua

Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren erabakia, zeinaren bidez dirulaguntzen 2018ko deialdia onartzen baita, Euskal Autonomia Erkidegoan enplegu-zentro berezietako lanbide-jardueran laguntzeko unitateak finantzatzeko. (EHAA, 247. zk., 2017ko abenduaren 29koa).

2018ko urtarrilaren 23ko bilkuran hartutako erabakia, zeinaren bidez aldatzen baita enplegu-zentro berezietako lanbide-jardueran laguntzeko unitateak finantzatzeko deialdia 2018. urterako. (28. EHAA, 2018ko urtarrilaren 25ekoa).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2017/12/1706308a.pdf>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2018/01/1800421a.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Dirulaguntza ematea enplegu-zentro berezietan lanbide-jardueran laguntzeko unitateetako langileak kontratatzeko: Profesional askok osatutako lantaldeak dira laguntzeko unitateak, eta beren egitekoa da enplegu-zentro berezietan laguntza ematea, desgaitasuna duten pertsonen eta lanpostu bat eskuratzeko prozesuan oztopo eta eragozpen handiak dituzten pertsonen laneratzeko zailtasunak gainditzeko, baita lanpostu horietan mantentzeko ere. Desgaitasuna duten pertsonak gizartean integrazio osoa izango dutela bermatzen dute enplegu-zentro berezietako egokitze pertsonal eta sozialeko zerbitzuek.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Lortutako emaitzak

Laguntzeko unitate kopurua: 35

Desgaitasuna duen erabiltzaile kopurua: 4.412

Aurrekontuaren exekuzioa

Deialdi honetako laguntzak 2018an finantzatzeko, 4.600.000 euro bideratu dira.

Emandako dirulaguntzak 4.523.427,38 eurokoak izan dira.

Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina

Laguntzeko unitateen programak zuzenean bermatzen du enplegu-zentro berezietako teknikarien enplegua mantenduko dela. Desgaitasuna eta laneratzeko zailtasun handiak dituzten pertsonen lanpostuak eskuratzeko eta lanpostu horietan mantentzeko behar duten laguntza eta akonpainamendua



emateko prozesuez arduratzen dira zentro horiek. Haien laguntzarik gabe, ezinezkoa izango litzateke bermatu kolektibo horren laneratzea (eta gizarteratzea).

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Diruz lagundutako lanbide-jardueran Laguntzeko Unitate kopurua:	37	35
Laguntzeko Unitateak erabiltzen dituzten desgaitasun larriko langile kopurua:	4.120	4.412



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Lehen Aukera programa

2.- Araua

Administrazio Kontseiluak 2018ko ekainaren 12ko bilkuran hartutako erabakia, zeinaren bidez laguntzen deialdia onesten baita, 2018. urterako, gazte langabeak EAeko enpresetan kontratatzeko. Lehen Aukera programa. (3180 Ebazpena, 2018/06/13koa - 118. EHAA, 2018ko ekainaren 20koa).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2018/06/1803180a.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdi honen xedea da beren tituluarekin lotutako lanetan esperientzia gutxi edo batere esperientziarik ez duten gazte langabeak (16 eta 30 urte bitartekoak) kontratatzea, praktikaldia egiteko edo kontratu mugagabearekin. Kontratuak **EAeko enpresek** egingo dituzte, lanbide-esperientziaren bidez gazte horien enplegarritasuna hobetzeko neurri gisa, eta haien laneratzea egonkortzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Lortutako emaitzak

Lehen lana eskuratu duen pertsona kopurua: 305 (91 emakume ate 214 gizon)

Aurrekontuaren exekuzioa

Deialdi honetan araututako laguntzak finantzatzeko, 4.000.000 euro bideratu dira (2.153.846 euro 2018ko ordainketa-kredituari dagozkio eta 1.846.154 euro, 2019ko konpromiso-kredituari), honela banatuta: 3.846.154 euro lan-kontratu mugagabeak eta praktikaldiko kontratuak finantzatzeko, eta 153.846 euro erakunde laguntzaileek lan-eskaintzak jaso, erregistratu eta kudeatzeko, bai eta trantsizio-prozesuaren kudeaketa eta jarraipena egiteko ere.

Emandako dirulaguntzak 1.587.028,79 eurokoak izan dira.

Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina

Programaren xedea da gazteen eta krisialdi ekonomikoaren kalte handienak jaso dituzten herritar-multzoen langabezia murriztea. Hain zuzen ere, gazteen langabezia murriztea da gure gizartearen erronka nagusietako bat, eta erronka horri aurre egin behar diote bai erakunde publikoek bai enpresa pribatuek. Arazo honen konponbidean arrakasta lortuko da, hein handi batean, parte hartzen duten erakunde eta sektore guztien laguntzari zein koordinazioari esker, baita ekimen pribatuak egokiak diren neurriak diseinatzean, hartzean eta martxan jartzean duen partaidetzari esker ere.

Gazteek lan-merkatuan sartzeko orduan duten zailtasunik handiena da esperientziarik eza. Hori dela



eta, deialdi honen xedea da erraztasunak ematea, ikasketak amaitu berri dituzten gazteei lan-munduan sartzeko lehen aukera emateko, hezkuntza-bizitzatik bizitza profesionalera errazago igaro daitezen. Horretarako, esperientzia biziko dute lanpostuan, eta, horrenbestez, lana aurkitzeko edo mantentzeko aukerak hobetuko dira.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Gazteei egin beharreko praktikaldiko lan-kontratu kopurua	800	255
Gazteei egin beharreko kontratu mugagabe kopurua	80	50
Parte hartu duen enpresa kopurua	450	333 (*)

(*) 285ek dirulaguntza jaso dute



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Tokiko entitateek gazteak kontratatzea, 2014-2020 eperako Gazte Enpleguaren Programa Operatiboaren markoan

2.- Araua

Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2018ko ekainaren 27ko bilkuran hartutako erabakiaren bidez, laguntzen deialdia onetsi du 2018ko ekitaldirako, toki-erakundeek, 2014-2020 eperako Gazte Enplegurako Programa Operatiboaren esparruan, gazteak kontrata ditzaten. (3497 Ebazpena, 2018/06/27koa - 129. EHAA, 2018ko uztailaren 5ekoa).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2018/07/1803497a.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdi honen xedea da gazte langabeak (16 eta 30 urte bitartekoak) kontratatzea beren titulazioarekin lotutako lanpostuetarako, beren tituluarekin lotutako lanetan esperientzia txikia edo batere esperientziarik ez duten heinean eta bai Lanbiden bai Gazte Bermerako Sistemari izena emanda duten heinean. Kontratuak **tokiko erakundeek** egingo dituzte, esperientzia profesionalaren bidez gazte horien enplegarritasuna hobetzeko, eta, hartara, haien laneratzea egonkortzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Lortutako emaitzak

- Eskaera kopurua: 37
- Kontratu kopurua: 258

Aurrekontuaren exekuzioa

Deialdi honetako laguntzak finantzatzeko, 6.500.000 euro bideratu dira, 2018ko ordainketa-kredituaren kontura.

Emandako dirulaguntzak 4.952.950,00eurokoak izan dira.

Baliagarritasuna eta gizartean duen eragina

Programaren xedea da gazteen eta krisialdi ekonomikoaren kalte handienak jaso dituzten herritar-multzoen langabezia murriztea. Hain zuzen ere, gazteen langabezia murriztea da gure gizartearen erronka nagusietako bat, eta erronka horri aurre egin behar diote bai erakunde publikoek bai enpresa pribatuek. Arazo honen konponbidean arrakasta lortuko da, hein handi batean, parte hartzen duten erakunde eta sektore guztien laguntzari zein koordinazioari esker, baita ekimen pribatuak egokiak diren neurriak diseinatzean, hartzean eta martxan jartzean duen partaidetzari esker ere.



Gazteek lan-merkatuan sartzeko orduan duten zailtasunik handiena da esperientziarik eza. Hori dela eta, deialdi honen xedea da erraztasunak ematea, ikasketak amaitu berri dituzten gazteei lan-munduan sartzeko lehen aukera emateko, hezkuntza-bizitzatik bizitza profesionalera errazago igaro daitezzen. Horretarako, esperientzia biziko dute lanpostuan, eta, horrenbestez, lana aurkitzeko edo mantentzeko aukerak hobetuko dira.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Egin beharreko kontratu kopurua:	400	236
Parte hartu duen toki-erakunde kopurua:	53	37